



2026ko urtarrilaren 27ko mahai orokorreko gai zerrendako 14. puntua

Jaurlaritzaren ardura, nahia eta lana da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea. Horren ondorio logikoa, enplegu publikoari dagokionez, lanpostu bati eskatu beharreko hizkuntza-trebetasunak aztertzea eta horren arabera hizkuntza eskakizunak finkatzen dira.

Gauzak horrela, nahitaez bete beharreko indizea beste parametro bat baino ez da. Gakoa Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea da, eta, ondorioz, lanpostu bati esleitutako komunikazio-ezaugarriak eta -premiak eta lanpostu horretan jarduteko eska daitezkeen hizkuntza-trebetasunak finkatzea.

Hau esanda, Jaurlaritzaren konpromisua irmoa da euskal administrazio baten alde. Datuak hor daude: 1995ean, administrazio orokorreko langileen % 34k bakarrik zekien euskaraz (egiaztagiriren bat zuen). 2025ean, kopuru hori % 90 ingurukoa da.

Egun indarrean dagoen sistemak funtzionatzen du, administrazio publikoaren euskara normalizazio bidean aurrera egiteko eraginkorra da eta sistema hau sostengatzen duen arautegiak Konstituzio-Epaitegitik jaso beharreko onespena jaso zuen bere momentuan.

Horregatik ez dugu ulertzen batzuek azken boladan agertzen duten euskararen aurkako obsesioa. Eta ez dugu partekatzen, ezta ere, konfrontazioaren bidea. Konfrontazioa ez da konponbideak topatzeko modu egokiena, kontrako giroa sor dezakeelako, eta horrekin batera, partaideen elkarriketarako bidea itxi, eta askotan okerrean, euren posizioetan tinko mantenduz.

Gu lankidetza eta elkarriketa-erakitzaile/zaleak gara, perspektiba desberdinak entzuteko eta ulertzeko aukera baliatuz, konponbide sortzaile, eraginkor eta iraunkorrangoak lortuz. Adierazi nahi dut elkarlana esparru honetan, ez dela zaila edo ezina, edo behintzat ez luke behar.

Horren alde ez badugu egiten, gizartearen zati esanguratsu bat bide-ertzean gelditzeko arriskua dago. Ez genuke hori ahalbideratu beharko, saia gaitezen gizarte anitz honen iritzi, nahi eta aukerak erabiliz ahalik eta adostasun zabalena bilatzen.



Guk, gobernutik, herritarren eta langile publikoen hizkuntza eskubideak babestuko ditugu eta euskara irmoki defendatuko dugu, euskara babestea gure hizkuntza erabiltzen dutenen aniztasuna, bizikidetza eta, batez ere, duintasuna babestea delako.